

Txoli Mateos

EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

Esklabo zoriontsuak

Zer da lana? Literatura filosofikoan, soziologikoan, eta teologikoan ere, mendeak dira gizakiaren jardun hori ulertzeko eta kokatzeko ahaleginak egiten direla.

Hala, lana har daiteke Jainkoak agindutako zigor gisa, katolizismo tradizionalak adierazi duen moduan. Arima salbu zegoelako frogamodura, kalbinismoak esaten zuen moduan. Gizarte kapitalistan kapitalista ez garenon patu legez, Marxek zioen bezala. Edota, emakumeon autonomiarako ezinbesteko baldintzatzat, feminismoak aldarrikatu duen bezalaxe. Izan ere, zinez luzea da lana ulertzeko gizarte-ikuskeren zerrenda.

Baina ikuskera guztien gainetik, nire ustez, lana zigor gisa ulertzea nagusitu da gure artean. Lan egitera behartuta jaio gara gizaki gehienok, nahi eta nahi ez. Eta jardun horri erants dakioken esangura politiko, erlijiozko edota militante ororen gainetik, lana *—beharra* esaten dugu bizkaieraz— egin beharreko zerbait da; ez da norberak plazerez egindakoa. Edo ez?

Esan gabe doa, lanak eta lanak daude. Lanbide batzuk erosoak dira, edo sormenari leku handiagoa uzten diote, edo oso ondo ordainduta daude... Pentsa liteke ez dutela zigor kutsurik. Ulertzekoa da, neurri batean behintzat,



INIGO AZKONA

erretiroaren ideiak arrakasta handirik ez izatea horrelako kasuetan. Beste batzuk, ordea... Badirudi, edo nik neuk behintzat beti ikusi dut horrela, lanbide jakin batzuetako langileek irrikan egon beharko luketela erretiroa noiz helduko, lan nekagarri eta malkartsu bat dutelako. Eta orain dela gutxi jabetzen hasita nago ez dela egia. Berdin da nolako lana egiten den, muga batzuen barruan, noski. Jendeak ez du erretiroa hartu nahi. Ezta pentsatu ere. Lanez gainezka, zeharo estresatuta, beti oporren esperotan egon arren... Zer egin etxean? Nola bete egunak? Zer egin bizitzarekin?

Lanak gure bizimodua egituratzen du. Hala, oporrak lanik eza dira. Eta lana dagoelako dute zentzua. Baina lanera joan beharrik ez badago, itxura denez, aisialdiak, eta, ondorioz ere, gure denbora osoak esangura galtzen du. Oporrak luzatzeko trikimailuak asmatuz ibili ohi gara; baina, sakonean, ezgauza gara geure bizimodua lanik gabe irudikatzen.

Sinetsita nago: gure gizartea zeharkatzen duen mamua ez da lana. Gehienontzat langabezia ere ez da. Erretiroa da, ordea, izua eragiten duena. Honatz ondorioa: esklabo zoriontsu bihurtu gara, eta zenbat eta hurbilago ikusi erretiroa, are eta zoriontsuago, are eta esklaboago. ■

« Gure gizartea zeharkatzen

duen mamua ez da lana.

Gehienontzat langabezia ere ez

da. Erretiroa da, ordea,

izua eragiten duena



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ikusita. Ez da lehen aldia gertatzen zaidana, zerbait ikusi, zerbait entzun eta aspalditik ezagututakoarena bezala hartu. Ez zaidala berria eta oraingoa iruditzen, alegia. Eta nola esan aldamenen daukazun gazteari, begi aurrean edota belarriek entzun berri duten hori jada zuk zaharra duzula, aspaldikoa. Isiltzen zara, jakiteak lotsa emango balizu bezala. Goizaldeko ilunpetan, okinen lehen labealdiaz bat txalapartak bailiran jotzen dituzte koadrila oso baten ateak, bate-ratsu. Oihu arrotzek esnatzen dituzte eta guztiak eskuburdinez estekatu. Zu, irratiak jartzen zaitu jakina-

Lehendik

ren gainean. Beti dago ezagunen bat tarteko. Astebururako deitzen da *manifa*. Goizean kafearekin batera kontrolak mugan. Frantsesak eta espainolak batera zubi berean: *Opération filtre*. Lehendik ikusita. Estetika bera. Kotxeak trabeska, kotxelariak kanpoan. Identifikazioak. Atzera buelta. Autobus zenbait berdintsu. Arratsaldean bi milakoa Baionako karriketetan. Orain hogeitaz urtekoa errepikatzen da. Atxilotuak libre Espainian ez bezala. Hor, ziegak eta galdeketek frogatzen diote zernahi epaileari. Komisaldegiak frogatzen dira, eta epaileak zuzendari. Frantzian, oraindik ez. Bidean dira. Denborak esango. ■